

Irurreko uraska

Uraska gazteleraz aljibe estaten da.

Aljibe hitza arabieratik dator.

Uraska bat edan zitekeen ura gordetzeko erabiltzen zen depositu bat da.

Hau Irurreko uraska da:



Uraska hau Garisoain herritik oso gertu dago, 200 metrotara.

Iturri Zaharreko errekaaren ezkerreko aldean dago.

Mapa honetan kolore gorrian Garisoain non dagoen ikus dezakezu:



Irakurketa Erraza



Nolakoa da uraska?

Laukizuzen forma du.

Zabalera 4 metro eta erdi baino pixka bat gehiagokoa da eta luzera 6 metrotakoa da.

Uraskaren inguruan harriz egindako horma batzuk daude. Gainean estalki bat du, hau da, 2 isurkiko teilatu bat du. Hau **2 isurkiko teilatu** bat da:



Uraskaren barruko aldea harrizkoa da ere eta kanoi-ganga du, hau da, zirkuluerdi baten forma du. Hau **kanoi-ganga** da:



Zertarako balio du uraskak?

- Animaliei edaten emateko.
 - Bertan gordetzen zen ura biltzeko.
- Gero ur hau etxean edateko, janaria prestatzeko eta norberaren garbitasunerako erabiltzen zen.

Uraska honetan zegoen ura

oso **gogorra** zen.

Honek esan nahi du

mineral asko zituela,

adibidez magnesioa eta kaltzioa.

Horregatik ezin zen

lekak egosteko edo arropa garbitzeko erabili.



"© European Easy-to-Read Logoa: Inclusion Europe. Informazio gehiago:
www.inclusion-europe.org/etr.